tik ekoizketarako ematen diren laguntzei buruzko zerbitzu teknikoaren zati baten eginkizuna, eta merkatuetan interbenitu eta horiek arautzearen kudeaketa, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzaren esku egongo da.

2.– Ekoizkin jakin batzuk erabili eta eraldatzeagatik ekoizketarako ematen diren laguntzei buruzko ordainketak baimentzeko eginkizuna Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzaren esku egongo da.»

*Hirugarren atala*.– Nekazaritzako politika komunak Euskal Autonomi Elkartean eragindako gastuen erakunde ordaintzailea eratu eta bere antolaketa eta jardupidea ezartzen duen irailaren 26ko 425/1995 Dekretuko 3. atalari honako hau gehitzen zaio:

«Ekoizkin jakin batzuk erabili eta eraldatzeagatik ekoizketarako ematen diren laguntzak».

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko maiatzaren 6an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

da a las ayudas a la producción por la utilización y transformación de determinados productos y la gestión de la intervención y regularización de mercados, se llevará a cabo por la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria.

2.– La función de autorización de pagos referida a las ayudas a la producción por la utilización y transformación de determinados productos se llevará a cabo por la Dirección de Política y Industria Agroalimentaria.»

*Artículo tercero*.– En el punto 3 del artículo 7 del Decreto 425/1995, de 26 de septiembre, por el que se constituye el organismo pagador de los gastos correspondientes a la política agrícola común en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establece su organización y funcionamiento, se adiciona:

«y las ayudas a la producción por la utilización y transformación de determinados productos».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-2546

116/1997 Dekretua, maiatzaren 13koa, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko prozesua arautzen duena.

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, ezarritakoa betetzeko, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzea eta eratzea ekarri zuten zenbait dekretu eta agindu argitaratu ziren.

9/1995 Lege Organikoak, azaroaren 20koak, ikastetxeetako partaidetza, ebaluazioa eta gobernuari buruzkoak, Eskola–Kontseiluaren edo Ordezkaritza Organo

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-2546

DECRETO 116/1997, de 13 de mayo, por el que se regula el procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Al amparo de lo dispuesto en la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, se dictaron diversos decretos y órdenes que culminaron en la elección y constitución de los órganos de gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la participación, la evaluación y el gobierno de los centros docentes, introdujo cambios en lo que se refiere a la

Gorenaren agintealdiari eta eraberritze partzialari dagokionez aldaketak sartu zituen.

Oinarrizko araudi berrira egokitzeko xedez 258/1996 Dekretua, azaroaren 12koa, Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko ez–unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duena, eman zen. Beronen ezarpenerako zegokion hautaketa prozesua iragarri zen eta ikastetxeetan Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) eratu zen, Organo horren funtzioetako bat ikastetxeko zuzendaria aukeratzea izanik.

Aipatutako 9/1995 Lege Organikoak, azaroaren 20koak, zuzendariaren hautaketa, zuzendari kargua betetzeko irakaslerik egokienak eta prestakuntza onena dutenak aukeratu eta, era berean, zuzendaritza-taldeen funtzionamendu hobezina eta berorien eskutan dauden aginpideak eraginkortasunez gauzatuko dituztela ziurtatuko duen prozesuaren emaitza izan behar duela adierazten du.

Beraz, aipatutako 9/1995 Lege Organikoak, azaroaren 20koak, ezarritakoari egindako egungo araudia egokitzea bidezkoa da, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko hurrengo prozeduretan kontuan har dadin.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Euskadiko Eskola-Kontseiluak igorritako irizpena eman ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko maiatzaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

## I. ATALBURUA
## XEDEA ETA EZARPEN EREMUA

*1. atala*.– Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko prozedura araupetzea da Dekretu honen xedea.

*2. atala*.– Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko guztiei ezarriko zaie Dekretu hau, beti ere, 1/1993 Legearen 1. atalaren lehenengo eta bigarren idazatiek jasotzen dutenez.

## II. ATALBURUA
## AGINTEALDIA ETA HAUTAGAIEN BALDINTZAK

*3. atala*.– Gobernuko pertsona bakarreko organoen agintealdiaren iraupena.

1.– Ikastetxean izendatu beharreko gobernuko per-

duración del mandato y renovación parcial del Consejo Escolar u Órgano Máximo de Representación.

Con objeto de ajustarse a la nueva normativa básica se dictó el Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, que regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En aplicación del mismo se convocó el correspondiente proceso electoral y en los centros docentes se constituyó el Órgano Máximo de Representación, una de cuyas funciones es la elección del Director/a del Centro.

La referida Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, señala que la elección del Director/a debe ser resultado de un procedimiento de modo que sean seleccionados/as para desempeñar la dirección los profesores/as más adecuados/as y mejor preparados/as, al tiempo que se asegure un funcionamiento óptimo de los equipos directivos y el ejercicio eficiente de las competencias que tienen encomendadas. Con esta finalidad introduce algunas variaciones en el procedimiento, requisitos y duración del mandato de los Directores/as de centros públicos docentes.

Por consiguiente, resulta procedente realizar una adecuación de la actual normativa a lo que establece la citada Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, para que sea tenida en consideración en los sucesivos procesos de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros públicos docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, conocido el dictamen emitido por el Consejo Escolar de Euskadi, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 13 de mayo de 1997,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1*.– Es objeto del presente Decreto la regulación del procedimiento de elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2*.– El presente Decreto será de aplicación en todos los centros públicos que impartan enseñanzas no universitarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco en los términos establecidos por los apartados primero y segundo del artículo 1 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.

## CAPÍTULO II
## DURACIÓN DEL MANDATO Y REQUISITOS DE LOS CANDIDATOS

*Artículo 3*.– Duración del mandato de los órganos unipersonales de gobierno.

1.– La duración del mandato de los órganos uniper-

tsona bakarreko organoen agintealdiaren iraupena lau urtekoa izango da.

2.– Sortu berriak diren ikastetxeetan, hezkuntza–administrazioak izendatutako gobernuko pertsona bakarreko organoen agintealdia hiru urtekoa izango da.

3.– Zuzendariak elkarren segidako hiru urteko epean aritu ahal izango dira karguan ikastetxe berean. Xede horretarako, 9/1995 Lege Organikoak, azaroaren 20koak, ezarritako irizpideei jarraiki izendatuta izan diren aldiak bakarrik kontuan hartuko lirateke.

*4. atala.*– Zuzendari kargurako hautagai izateko baldintzak.

1.– Ondoko baldintzak betetzen dituen edozein irakasle, karrerako funtzionario, izan daiteke zuzendari kargurako hautagai:

a) Aukera eskaini dizun irakaskuntzako funtzio publikoko kidegoan gutxienez bost urteko antzinatasuna izatea eta denbora tarte bera irakasle izana maila eta erregimen bereko irakaskuntza ematen duen ikastetxean.

b) Behin betiko destinoa izatea ikastetxean, bertan ikasturte oso bateko gutxieneko antzinatasuna izanik.

c) Zuzendari funtzioa betetzeko Hezkuntza-Administrazioak kreditatu izana.

2.– Haur-Hezkuntzako zentro espezifikoetan, Lehen Hezkuntzako ikastetxe osagabeetan, zortzi unitate baino gutxiago dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta araubide espezifikoko irakaskuntzak edo helduei zuzendutakoak ematen direnetan, zortzi irakasle baino gutxiago dituztelarik, hautagaiek aurreko puntuko b) baldintza soilik bete beharko dute.

## III. ATALBURUA
## GOBERNUKO PERTSONA BAKARREKO ORGANOEN HAUTAKETA-PROZESUA

*5. atala.*– 1.– Gobernuko pertsona bakarreko organoen hautaketa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabaki dezan epealdiaren barruan egingo da, ikasturtearen azken hiruhilekoan.

2.– Zuzendaria ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak hautatuko du. Hautaketa prozesuan ezin izango dute parte hartu OOGko kide diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehenengo Zikloko ikasleek, azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren 12.1 atalak dioenaren arabera.

*6. atala.*– 1.– Ikastetxeetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko hauteskunde-aldia hasitakotzat eman dezan Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta zazpi eguneko epean, Ordezkaritza Organu Gorenak zuzendaria hautatzeko bilkura noiz

sonales de gobierno que corresponde designar en el centro será de cuatro años.

2.– En los centros de nueva creación, la duración del mandato de todos los órganos unipersonales de gobierno nombrados por la Administración educativa será de tres años.

3.– Los Directores/as podrán desempeñar su mandato en el mismo centro por un máximo de tres periodos consecutivos. A estos efectos, se tendrán en cuenta exclusivamente los periodos para los que hubieran sido designados de acuerdo con los criterios establecidos en la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre.

*Artículo 4.*– Requisitos para ser candidato a Director/a.

1.– Podrá ser candidato a Director/a cualquier profesor/a, funcionario/a de carrera, que reúna los siguientes requisitos:

a) Tener una antigüedad de al menos cinco años en el cuerpo de la función pública docente desde el que se opta y haber sido profesor/a, durante un periodo de igual duración, en un centro que imparta enseñanzas del mismo nivel y régimen.

b) Tener destino definitivo en el centro, con una antigüedad en el mismo de al menos un curso completo.

c) Haber sido acreditado/a por la Administración educativa para el ejercicio de la función directiva.

2.– En los centros específicos de Educación Infantil, en los incompletos de Educación Primaria, en los de Educación Secundaria con menos de ocho unidades y en los que impartan enseñanzas de régimen especial o dirigidas a las personas adultas con menos de ocho profesores/as, los/as candidatos/as habrán de cumplir únicamente el requisito b) del punto anterior.

## CAPÍTULO III
## PROCEDIMIENTO DE ELECCIÓN DE LOS ÓRGANOS UNIPERSONALES DE GOBIERNO

*Artículo 5.*– 1.– La elección y nombramiento de los órganos unipersonales de gobierno de los centros se realizará dentro del periodo fijado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en el último trimestre del curso escolar.

2.– El Director/a será elegido por el Órgano Máximo de Representación del centro. En el proceso electoral no podrán participar los/as alumnos/as del Primer Ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria que sean miembros del O.M.R., de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 12.1 de la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre.

*Artículo 6.*– 1.– En el plazo máximo de siete días a partir del siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se declare abierto el proceso para la elección de los órganos unipersonales de gobierno de los centros, el Órgano Máximo de Representación fijará la fecha en la que se ha de

egingo den zehaztuko du eta hilabete lehenago argitaratuko du hori.

2.– Momentu horretatik aurrera hamabost eguneko epea zabalduko da kargua betetzeko irakasle izangaiek zuzendaritza programa adieraziz beraien kandidatura aurkez dezaten. Programan hautagaiak bere merituak eta bere zuzendaritza taldeko gainontzeko kideen izenak sartu beharko ditu.

*7. atala.*– Zuzendaria aukeratuko deneko bilkura-eguna baino lehen, eskatzen diren baldintzak bete ez ditzaten hautagaiak baztertu egin beharko ditu Ordezkaritza Organu Gorenak. Erabaki horren aurka errekurtsoa jar dakioke kasuan kasuko Hezkuntza Lurralde ordezkariari.

*8. atala.*– Ordezkaritza Organo Goreneko kideen artetik aukeratuko diren bi irakaslek eta bi gurasok osatuko duten hauteskunde-mahaia eratuko da zuzendaria aukeratzeko. Mahaiburua adinez nagusiena den irakaslea izango da, eta idazkaria adinez gazteena dena.

*9. atala.*– 1.– Zuzendari berriaren aukeraketa hauteskunde-mahaiaren aurrean egingo da artezko eta isilpeko botoz, Ordezkaritza Organo Goreneko kideen erabateko gehiengoa izango dela beharrezko lehenengo ekitaldian.

2.– Hautagai bat baino gehiago izatekotan, euretako inork lortuko ez balu erabateko gehiengoa, lehenengo ekitaldian botorik gehien lortu dituen hautagaia baino ez litzateke agertuko kandidatu gisa bigarren ekitaldian. Bigarren ekitaldi horretan ere, nahiezkoa izango da ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko kideen erabateko gehiengoa lortzea.

*10. atala.*– Ordezkaritza Organo Gorenari adierazi ondoren, ikastetxeko irakasleen artetik hautatutako zuzendariaren proposamenez, ikasketaburua, idazkaria eta ikastetxean egon daitekeen gainontzeko gobernuko pertsona bakarreko organoen izendapena (administratzailea salbu) egingo da, ikastetxearen antolamendu eta jarduera araudiak xedatutakoari jarraiki.

*11. atala.*– Aipatutako ekintzak amaitu ondoren hauteskunde–mahaiko lehendakariak honako agiri hauek bidali beharko ditu Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara ekainaren 25a baino lehen:

a) Ordezkaritza Organo Gorenak zuzendaria eta gainontzeko gobernuko pertsona bakarreko organoak (administratzailea salbu) izendatzeko egin dituen proposamenak.

b) Proposamenaren gai izan diren hautagaiei buruzko deklarazioa, aukeraketarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela jasota gerarazi beharko dela bertan, baita horien justifikazioa ere.

c) Ordezkaritza Organo Gorenak hauteskunde-prozesua aurrera eramateko egin dituen bilkuren akten kopia.

*12. atala.*– Lehen aipatu diren agiri horiek jaso eta aztertu ondoren, Hezkuntza Lurralde ordezkariak proposamenaren gai izan diren hautagaien izendapena

celebrar la sesión para la elección del Director/a y la hará pública con una antelación mínima de un mes.

2.– A partir de este momento se abre un plazo de quince días para que los profesores/as aspirantes al cargo presenten su candidatura con indicación del programa de dirección, que debe incluir los méritos del candidato/a a Director/a y los nombres de los restantes miembros de su equipo directivo.

*Artículo 7.*– Con anterioridad a la fecha en que se celebre la sesión para la elección del Director/a, el Órgano Máximo de Representación deberá rechazar las candidaturas que no cumplan los requisitos exigidos, siendo este acuerdo recurrible ante el Delegado Territorial de Educación correspondiente.

*Artículo 8.*– Para la elección del Director/a se constituirá una mesa electoral integrada por dos profesores/as y dos padres/madres de alumnos/as elegidos de entre los miembros del Órgano Máximo de Representación. La mesa estará presidida por el profesor/a de mayor edad, siendo secretario/a el/la de menor edad.

*Artículo 9.*– 1.– La elección del nuevo director/a se realizará mediante sufragio directo y secreto ante la mesa electoral, requiriéndose en la primera vuelta el apoyo de la mayoría absoluta de los miembros del Órgano Máximo de Representación.

2.– Cuando, concurriendo más de un candidato/a, ninguno de ellos obtuviera la mayoría absoluta, se procederá a realizar una segunda votación en la que figurará como candidato/a únicamente el/la más votado/a en la primera. La elección en esta segunda votación requerirá también mayoría absoluta de los miembros del Órgano Máximo de Representación de centro.

*Artículo 10.*– El/la Jefe de Estudios y el Secretario/a así como los demás Órganos Unipersonales de Gobierno que puedan existir en el centro, salvo el Administrador/a, de conformidad con lo que se disponga en el correspondiente Reglamento de Organización y Funcionamiento, serán designados/as por el director/a elegido/a de entre los profesores/as del centro, previa comunicación al Órgano Máximo de Representación.

*Artículo 11.*– Finalizados los actos anteriores, el/la presidente de la mesa electoral remitirá a la Delegación Territorial antes del 25 de junio los documentos siguientes:

a) Propuestas del nombramiento del Director/a y demás Órganos Unipersonales de Gobierno, salvo el Administrador/a, efectuadas por el Órgano Máximo de Representación.

b) Declaración de los/as candidatos/as propuestos/as donde hagan constar que reúnen los requisitos exigidos para su elección, junto con la justificación correspondiente de los mismos.

c) Copia de las actas de las sesiones del Órgano Máximo de Representación correspondientes al desarrollo del proceso electoral.

*Artículo 12.*– Recibida y examinada la documentación anterior, el/la Delegado/a Territorial de Educación procederá al nombramiento de los/as candidatos/as pro-

egingo du lau urterako, eta horrek aurtengo uztailaren 1etik hasita ekarriko ditu ondorioak.

*13. atala.*– Hautagairik egon ez bada edo erabateko gehiengorik lortu ez denean, ikastetxeko zuzendariak egoera horren berri emango dio Hezkuntza Lurralde ordezkariari Dekretu honen 11. atalean adierazi den data igaro aurretik.

Kasu horretan, Hezkuntza Lurralde ordezkariak Dekretu honen 4. atalean ezarrita dauden a) eta c) baldintzak betetzen dituen irakasle bat izendatuko du zuzendari lau urterako. Era berean izendatutako zuzendariak berak proposatutako ikastetxeko gobernuko pertsona bakarreko gainontzeko organoak izendatuko ditu.

*14. atala.*– Sortu berriak diren ikastetxeetan, Hezkuntza Lurralde ordezkariak Dekretu honen 4. atalean ezarrita dauden a) eta c) baldintzak betetzen dituen irakasle bat zuzendari izendatuko du, hiru urterako.

Modu berean, izendatutako zuzendariak berak proposatutako ikastetxeko gobernuko pertsona bakarreko gainontzeko organoak, administratzailea salbu, izendatuko ditu.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honetan xedatutakoaren eraginetarako, lanlegepeko kontratu finkoa duten irakasle eta karrerako funtzionario-izaerak baliokideak izango dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

1996/97 ikasturtean burutuko den hautaketa prozesurako, dauden zirkunstantzia bereziak direla eta, kontuan hartuko diren epeak honako hauek izango dira:

Ikastetxeetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko hauteskunde-aldia hasitakotzat eman dezan Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik lau eguneko epean, Ordezkaritza Organo Gorenak zuzendaria hautatzeko hauteskundeak noiz egingo diren zehaztuko du eta hamabost egun lehenago argitaratuko du hori.

Momentu horretatik aurrera zazpi eguneko epea zabalduko da kargua betetzeko irakasle izangaiek, zuzendaritza programa eta bere zuzendaritza taldeko gainontzeko kideen izenak adieraziz, beraien kandidatura aurkez dezaten.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta gelditzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko otsailaren 21eko Agindua, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko prozedura arautzen

puestos/as por un periodo de cuatro años y con efectos de 1 de julio del año en curso.

*Artículo 13.*– Cuando no hayan existido candidatos/as o cuando éstos/as no obtuvieran la mayoría absoluta, el/la director/a del centro enviará comunicación de esta circunstancia al Delegado/a Territorial de Educación antes de la fecha señalada en el artículo 11 del presente Decreto.

En este caso, el Delegado/a Territorial de Educación nombrará Director/a por un periodo de cuatro años a un profesor/a que reúna los requisitos a) y c) establecidos en el artículo 4 del presente Decreto. Así mismo, procederá al nombramiento de los otros Órganos Unipersonales del Centro, que serán propuestos por el/la Director/a nombrado/a.

*Artículo 14.*– En los centros de nueva creación, el/la Delegado/a Territorial de Educación nombrará Director/a, por un periodo de tres años, a un profesor/a que reúna los requisitos a) y c) establecidos en el artículo 4 del presente Decreto.

De igual modo procederá al nombramiento de los otros Órganos Unipersonales del Centro, salvo el Administrador/a, que serán propuestos por el/la Director/a nombrado/a.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos de lo dispuesto en este Decreto, el profesorado con contrato laboral indefinido tendrá análoga consideración que los/as funcionarios/as de carrera.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Para el proceso electoral que se realizará en el curso escolar 1996/97, en razón de las circunstancias que concurren, los plazos que habrán de tenerse en cuenta para el mismo, serán los siguientes:

El Órgano Máximo de Representación fijará la fecha en la que se ha de celebrar la sesión para la elección de Director/a en el plazo máximo de cuatro días a partir del siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se declare abierto el proceso para la elección de los Órganos Unipersonales de Gobierno de los Centros, debiendo hacerla pública con una antelación mínima de quince días.

El plazo que se abre a partir de ese momento para que los/as profesores/as aspirantes al cargo presenten su candidatura, con indicación del programa de Dirección y los nombres de los restantes miembros de su equipo directivo, será de siete días.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 21 de febrero de 1994 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el procedimiento de elección de los Órganos de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma

duena; halaber Dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu honek, administrazio-jardunbideari dagokionez, aurreikusten ez duen guztia ebazteko, Herri Administrazioaren Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, aplikatuko da.

*Bigarrena.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ahalmena emango zaio, azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak erabakitakoa errespetatuz, ikastetxeko zuzendaria eta gainontzeko pertsona bakarreko organoak kargugabetzeko arrazoiak, baldintzak eta ondorioak arautzeko.

*Hirugarrena.*– Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko maiatzaren 13an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-2547

111/1997 DEKRETUA, maiatzaren 13koa, Sailburuaren Kabinetearen zuzendaria bere kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 18. ataleko j) idazatian, 26. ataleko 6. idazatian eta 29. atalean xedatutakoaz bat etorriz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko maiatzaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Mauricio Lazcano Brotóns jauna Sailburuaren Kabinetearen zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatu duelako, eta, bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

del País Vasco y todas aquellas otras disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a los dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– En todo lo no previsto por el presente Decreto en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.*– Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación, para regular, respetando lo dispuesto en la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, las causas, condiciones y consecuencias del cese del Director/a y de los otros órganos unipersonales de gobierno del centro.

*Tercera.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de mayo de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,
Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### N°-2547

DECRETO 111/1997, de 13 de mayo, por el que se dispone el cese del Director del Gabinete del Consejero.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 13 de mayo de 1997,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Cesar, a petición propia, a D. Mauricio Lazcano Brotóns como Director del Gabinete del Consejero, agradeciéndole los servicios prestados.